



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urriaren 10a

116. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/MOC-00133. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita neurriak har ditzan lan-merkatuan adinkeria detektatzeko eta desagerrarazteko. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).
- 11-25/MOC-00134. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gizarte-zerbitzuen eta zainketen sistema publiko, komunitario eta desmerkantilizatua eraikitzeko urratsak egin ditzan. Javier Arza Porras jaunak aurkeztu du (4. or.).
- 11-25/MOC-00135. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako udalak premiatzen baitira berma dezaten beren udal-espazio publikoak irekiak eta erabilgarriak izan daitezen, bazterkeriarik eta pribilegiorik gabe, plurtasun kulturalaren eta bizikidetzaren demokratiko eta laikoaren defentsan. Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztu du (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00348. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko klimatizazioari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (7. or.).
- 11-25/PES-00349. Galdera, Nafarroako sare elektrikoari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (8. or.).
- 11-25/PES-00350. Galdera, Lanbide Heziketa Dualari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (8. or.).
- 11-25/PES-00351. Galdera, Nafarroako Turismoaren Agenda Ofizialean Corellako Ardo Azoka ez agertzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (9. or.).
- 11-25/PES-00352. Galdera, Hiri Zirkularraren proiektuari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (10. or.).
- 11-25/PES-00353. Galdera, Cintruénigoko La Paz BHIaren hezkuntza-eskaintza handitzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (11. or.).

- 11-25/PES-00354. Galdera, zeliakia edo glutenarekiko intolerantzia duten pertsonen laguntzeko neurri ekonomiko espezifikoak buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (11. or.).
- 11-25/PES-00355. Galdera, Laneratzeko Plan Estrategikoari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andre-ak egin du (12. or.).
- 11-25/PES-00356. Galdera, Ultzama ibaian dozenaka amuarrain hilik agertu izanaren arrazoiei eta neurriei buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (12. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

- 11-25/DPGC-00001. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, erkidegoaren egoerari buruzko 2025eko eztabaida dela-eta (13. or.).
- 11-25/DPGC-00001. Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2025eko eztabaida antolatze arauak (15. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00133. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita neurriak har ditzan lan-merkatuan adinkeria detektatzeko eta desagerrarazteko

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita neurriak har ditzan lan-merkatuan adinkeria detektatzeko eta desagerrarazteko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan lan-merkatuan adinkeria detektatzeko eta desagerrarazteko

Eskatzen dugu mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean egin dadila.

Zioen azalpena

Adinkeria –adinean oinarritutako diskriminazioa– errealitate iraunkorra da gizartearen eremu askotan, baita lan-merkatuan ere, eta biztanleriaren hainbat sektoreri eragiten dio, hala nola gazteei eta adinekoei.

OMEak adinkeriarri buruz egindako munduko txostenaren arabera, adinkeriak areagotu egiten du indarkeria- eta abusu-arriskua, eta osasun fisiko eta mental okerragoarekin eta bizi-itxaropen txikiagoarekin lotzen da.

Gurean, modu esplizituan aitortu da adina diskriminazio-modu gisa, Tratu-berdintasunaren eta diskriminazio ezaren aldeko uztailaren 12ko 15/2022 Lege integralaren 2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Pertsonak, urteak bete ahala, askotan oztopo eta aurreiritziei aurre egin behar izaten diete beren adinagatik enplegua bilatzeko; diskriminazio hori, bidegabera izateaz gain, kaltegarria ere bada gurea bezalako gizarte aurreratu baten hazkunde ekonomikorako eta aukera-berdintasunerako.

Aurrerapen handiak egin dira Nafarroako eta Espainiako gobernu aurrerakoen eskutik, eskuineko gobernuak aplikatutako politika neoliberalen ondorio kaltegarriak iraultzeko, zeinek lan-merkatua desarautzera eta langileen lan-baldintzak prekarizatzen eraman baikintuzten. Gaur egun, Nafarroak Estatuko langabezia-tasarik baxuenetakoak ditu, eta errekorra gizarte-segurantzako afiliazioetan.

Hori guztia gorabehera, oraindik ere badira arrakalak. Guztion arduraren da horiek ezabatzea eta lan-merkatuan berdintasuna eta justizia soziala sustatzea.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-merkatuko adinkeriarri buruzko ikerketa eta datu-bilketa egin dezan, sexuaren arabera bereizita, haren kausak eta ondorioak ulertzeko, eta, horrela, adinaren arabera-

ko diskriminazioa eraginkortasunez jorratuko duten politiken eta programen ezarpena baloratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du neurri zehatz eta eraginkorrak bultzatzen dituzan lan-merkatuan adinkerari aurre egite-

ko eta langile guztien aukera-berdintasuna sustatzeko maila hierarkiko eta ekoizpen-sektore guztietan, adina edozein dela ere.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Eleduna: Ainhoa Unzu Gárate

11-25/MOC-00134. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita gizarte-zerbitzuen eta zainketen sistema publiko, komunitario eta desmerkantilizatua eraikitzeko urratsak egin ditzan

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita gizarte-zerbitzuen eta zainketen sistema publiko, komunitario eta desmerkantilizatua eraikitzeko urratsak egin ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrásen, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak 2023an argitaratu zuen iraupen luzeko zaintzei buruzko txostenaren arabera, kudeaketa publikoak oso presentzia txikia du gizarte-zerbitzuetan. Bestalde, Mendekotasunaren Estatuko Behatokiaren azken txostenak (2025) berriz ere islatzen du mendekotasunaren arretarako gure sistemak duen ahulezia historikotako bat: prestazioen presentzia handia zerbi-

tzuen aldean. Txosten horren arabera, Nafarroan aplikatutako baliabideen % 42 familiako prestazio ekonomikoak dira, eta Estatu osoan portzentajea % 29ra jaisten da.

Horrekin zuzeneko lotura duena da "Ongizate Estatuaren laugarren zutabeak –gizarte zerbitzuak– beste sistema batzuen sendotasunaren aldean –esaterako, hezkuntza eta osasuna– daukan ahulezia", Nafarroako Gobernuak iraupen luzeko zaintzei buruz egindako txosten horretan esaten den moduan.

Hauskortasun instituzional horrek, zainketen eta, oro har, gizarte zerbitzuen arloko premia izugarri eta gero eta handiagoekin batera, aspalditik hauspotu merkatuak sektore horren gainean duen interesa. Irabazi asmoaren presentzia nabarmena da, batez ere egoitza-eremuan eta eguneko zentroetan, eta horrek kalte egiten die lan-baldintzei, zerbitzuen kalitateari, prezioei eta, azken batean, eskubideak baliatzeari.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak:

- Nafarroako Gobernu premiatzen du aurrerabidea egin dezan zaintzen eta gizarte zerbitzuen sistema publiko, komunitario eta desmerkantilizatuaren eraikuntzan.

- Nafarroako Gobernu premiatzen du gizarte zerbitzuen kudeaketan irabazi asmoaren presentzia desagerraraziko duten neurriak jaso dituzan Hirugarren Sektoreari, Mendekotasunari eta Gizarte Zerbitzuei buruzko legeetan, edo foru-araudian egin beharreko aldaketetan, bereziki zaintzekin zerikusia dutenetan.

Iruñean, 2025eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-25/MOC-00135. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako udalak premiatzen baitira berma dezaten beren udal-espazio publikoak irekiak eta erabilgarriak izan daitezen, bazterkeriarik eta pribilegiarik gabe, pluraltasun kulturalaren eta bizikidetzaren demokratiko eta laikoaren defentsan

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bazarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako udalak premiatzen baitira berma dezaten beren udal-espazio publikoak irekiak eta erabilgarriak izan daitezen, bazterkeriarik eta pribilegiarik gabe, pluraltasun kulturalaren eta bizikidetzaren demokratiko eta laikoaren defentsan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Batzordean egin dadila eskatzen dugu.

Zioen azalpena

Joan den udan, Jumillako Udalak polemikaz debekatu zuen udal-espazio publikoak, bereziki kirol-instalazioak, lagatzea, esate baterako, erkidego musulmanari. Erabaki horrek urratu egiten ditu gizarte demokratiko aurreratu oro gidatu behar duten aniztasunaren, benetako laizismoaren eta bizikidetzaren funtsezko balioak.

Tamalez, Murtziako udalerrri horretan gertatutakoa ez da gertakari isolatu bat. Zoritxarrez, Jumillako Udalak onetsitakoaren gisako proposamen politikoak entzun ditugu azken hilabeteetan Nafarroan.

Festa herrikoiak, erlijiosoak zein laikoak, tresna baliotsuak dira gizarte-loturak indartzeko, erkidego guztiak kulturalki aitortzeko eta gizarte-kohesioa sustatzeko. Kolektibo jakin baten festak ospatzea eragozteak diskriminazioa eta bazterkeria eragiten ditu, lotura horiek hausteaz gain.

2025eko Nafarroan, pertsona guztiek beren tradizioak partekatzeke eta ospatzeko duten eskubidea defendatu behar dugu, erkidego bakoitzak Nafarroako nahiz beste edozein erkidegotako gizarte osoa aberasten laguntzen duelako kulturaren ikuspegitik. Besteen festak eta tradizioak errespetatzea eta balioestea zubi kultural eta emozional boteretsuak dira, elkar ezagutzea sustatzen dutenak, esparru laiko eta inklusibo baten barruan egiazko berdintasuna sustatzen dutenak, zatiketa eta isolamendua borrokatu bidenabar.

Benetako laizismoa ez da espazio publikoen erabilera debekatzea, baizik eta espazio horiek pribilegio eta bazterketarik gabe erabiltzen direla bermatzea, kultu-askatasuna, berdintasuna eta kultura-aniztasunarekiko errespetua ziurtatuz, Espainiako Konstituzioan eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean ezarritakoaren arabera.

Nafarroa eskualde kulturantzun eta plurala da, nortasun politiko eta kultural ugari bata bestearen ondoan biltzen dituena. Ezin da Nafarroako kulturaz eta folkloreak hitz egin Nafarroako herri eta hiriek egiten duten ekarpen aberatsa onartu gabe, bai eta, orain, planetako beste leku batzuetatik heldu diren nafar berriek egiten dutena ere. Erkidego bakoitzaren folklorea partekatzeak gizarteak aberasten du, eta, gainera, tresnarik onena da aurreiritziak uxatzeko eta bizikidetzaren finkatzeko, errespetutik eta alaitasunetik abiatuta.

Ukaezina da Nafarroako kultura- eta folkloreak aberastasuna, eta funtsezkoa da kaleak, plazak eta, oro har, espazio publikoak irekita egotea erkidego guztiek erabat goza ditzaten. Hala, hainbat ospakizun egin ditzakegu elkarrekin, hala nola Tuterako edo Corellako aste santuko ekitaldiak, erlijio-tradizio sakonak biltzen dituztenak; edo iparraldeko jai pagano eta mitologikoak, hala nola Lantz, Ituren, Zubieta edo Altsasuko inauteriak.

Era berean, funtsezkoa da erlijio-festa islamikoak aprobetxatzea eta aintzatestea, hala nola

Ramadanaren amaiera markatzen duen eta dagoeneko Nafarroako erkidego musulmanak ospatzen duen Eid al-Fitr festa, edo Eid al-Adha festa, esanahiz eta bizikidetzaz beterikoak.

Garrantzitsuak dira, halaber, Kolon aurreko Hego Amerikako jaiak, gero eta ugariagoak baitira Latinoamerikako erkidegoak dituzten gure herrietan, hala nola Peruko Inti Raymi (Eguzkiaren Festa) edo Kolonbiako Barranquillako inauteriak. Ospakizun horiek kultur panorama aberasten dute eta beste errealitate batzuetara hurbiltzen gaituzte.

Txinako Urte Berriaren festa ere, dragoien eta lehoien dantza koloretsuekin, edo kultura afrikarraren ospakizuna, Nafarroan aspalditik bizi dugun kultura-aniztasunaren adibideak dira, lekua eta errespetua merezi dutenak gure herrietan.

Festa horiek espazio publikoetan ospatu ahal izatea errazteak aukera ematen du loturak estu-

tzeko, bizipenak partekatzeko eta elkarrekiko errespetua sustatzeko, gizarte osoa aberasten baitute eta aniztasunean, bai eta inklusioan eta laizismoan oinarritutako bizikidetzaz eraikitzen ere.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako udal guztiak premiatzen ditu berma dezaten beren udal-espazio publikoak irekita eta erabilgarri egon direla erkidego, kolektibo eta konfesio guztien festak eta kultura-ekitaldiak ospatzeko, eskusiorik eta pribilegioarik gabe, eta errefusatu egiten du jatorriagatik, erlijioagatik edo sinesmenengatik gutxiengoei edo erkidegoei espazio publikoak lagatzea edo erabiltzea debekatzen duen erabaki edo xedapen oro, kultura-aniztasunaren eta bizikidetzaz demokratiko eta laikoaren defentsan.

Iruñean, 2025eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00348. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko klimatizazioari buruzkoa*MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko klimatizazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-25/PES-00278 galderari emandako erantzunean, Osasuneko kontseilariak onartu zuen Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan (NOU) 30 °C-ko tenperaturak gainditu direla 2025eko udan, 2022an lizitatu zen klimatizazio integraleko kontratua ez zela izapidetzera iritsi eta gaur egun ez dagoela kronograma loteslerik gabezia hori behin betiko ebazteko.

Era berean, Gobernuak onartzen du Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan hartutako konponbideak partzialak izan direla eta abian diren obrei lotuta egon direla (H2-ko eta H3-ko klimatizazioa, NOU-Ako bloke kirurgikoa, espetxe-modulua). Aurrekontu espezifikoa 242.000 euro ingurukoa izan da 2025ean, eta ez da nahikoa esku-hartze globala egiteko.

Kontseilariak berak azpimarratu ditu NOUaren egiturazko zailtasunak —izan ere, eraikin isolatuz osaturik dago—, eta onartu du egoera hori epe ertainerako azpiegitura-plan batekin soilik konponduko dela. Hala ere, horrek erantzunik gabe uzten du berehalako neurrien beharra, pazienteei eta profesionalei baldintza termiko seguruak bermatzeko.

Gainera, badira proposamen tekniko ezagunak eta berehala aplikatzeko modukoak — hala nola kanpoko klimatizazio-unitate mugikorak, bigarren mailako inguratzaile aldi baterakoak, VRF sistema modularrak edo kanpoko itzaleztadura —, egoera hobetzea ahalbidetuko luketenak, ospitale-jardueira geldiarazi beharrik gabe.

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik, premiaz eta NOUko klimatizazio integraleko kontratua izapidetzen den bitartean, kanpoko behin-behineko klimatizazio-neurririk ezartzeko (unitate mugikorak, aldi baterako itzaleztadura, VRF sistema modularrak edo bigarren mailako inguratzaileak), bermatzeko ezen 2026ko udan Nafarroako Unibertsitate Ospitalean 30°C-tik gorako tenperatura-egoerak errepikatuko ez direla?

Iruñean, 2025eko irailaren 28an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/PES-00349. Galdera, Nafarroako sare elektrikoari buruzkoa*MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Nafarroako sare elektrikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako sare elektrikoak gero eta tentsio-egoera handiagoa du, eta azpiestazioen saturazioa jada % 94koa da, duela gutxi ezagututako datuen arabera. Errealitate horrek, egungo hornidura ez ezik, Foru Komunitatearen hazkunde ekonomiko eta industrialerako ahalmena ere jartzen du arriskuan.

Nafarroa erreferentea izan da energia berriztagarrietan eta energia-trantsizioan, baina garraio-eta banaketa-sarearen gaitasun falta botila-lepo bihur daiteke industria-inbertsio berrietarako. Beraz, azpiegitura elektrikoa indartzea ezinbestekoa da lehiakortasuna bermatzeko eta enpresak erakartzeko.

Testuinguru horretan, funtsezkoa da zehatz-mehatz jakitea zer neurri hartzen ari den Nafarroako Gobernuak, Estatuko Gobernuarekin koordinatuta, saturazio horri erantzuteko, eta zer epe zehaztuta gauzatuko diren aurreikusitako inbertsioak.

Horregatik guztiagatik, eta Ganberaren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, idatzizko galdera hauek egiten dira:

1. Nafarroako Gobernuak zer neurri zehatz hartuko du foru-erkidegoko azpiestazio elektriko-
en egungo saturazioa (% 94) arintzeko?

2. Sare elektrikoko inbertsioek edo hobekuntzek zer epetan uste da ekarriko dutela Nafarroako industria-hazkundeari eusteko ahalmen handiagoa?

3. Nola koordinatzen da Nafarroako Gobernuak Estatuko Gobernuarekin 2030erako Elektrizitatearen Estatu Planak gure lurraldean identifikatutako beharrei erantzunen diela ziurtatzeko?

Iruñean, 2025eko irailaren 28an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/PES-00350. Galdera, Lanbide Heziketa Dualari buruzkoa*MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Lanbide Heziketa Dualari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

ren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroa LH dualaren ezarpen handiena duten autonomia-erkidegoen artean dago. Hala ere, oraindik ere kezka-iturri dira enpresetan ematen den prestakuntza homogeneousuna eta kalitatea, bai eta ikasleen lan-baldintzak ere, kasu batzuetan aldea egon baitaiteke sektoreen eta lurraldeen artean.

Enpresa-sarearen parte-hartzea funtsezkoa da LH dualak arrakasta izan dezan. Hala ere, enpresa txiki eta ertainek, batez ere landa-eremuetan, zailtasunak izaten dituzte eredu horretan inplikatzeke, baliabiderik edo barne-tutore prestaturik ez dutelako, eta horrek programarako sarbidea desberdina izatea ekar dezake.

LH dualak lan-merkatuaren eraldaketei erantzun behar die; izan ere, lan-merkatua digitalizazioak, trantsizio energetikoak eta biztanleriaren zahartzeak markatzen dute. Horretarako, ezinbestekoa da prestakuntza-programak etengabe eguneratzea Foru Komunitateko sektore estrategikoekin.

LH dualaren helburu nagusietako bat gazteen enplegarritasuna hobetzea da. Haren eraginkortasuna ebaluatzeke, ikasleen laneratzea neurtzen duten jarraipen-sistemak eduki behar dira, sekto-

reen, lurraldeen eta profil soziodemografikoen araber bereizita.

Horregatik guztiagatik, eta Ganberaren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, idatzizko galdera hauek egiten dira:

1. Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko du LH dualeko ikasleentzako prestakuntzaren kalitatea eta lan-baldintza egokiak bermatuko dituzten kontrol- eta jarraipen-mekanismoak indartzeko?

2. Nafarroako Gobernuak zer laguntza edo pizgarri espezifiko jarriko ditu abian enpresa txiki eta ertainak, batez ere landa-eremuetan, LH dualaren erudian aktiboki sar daitezten errazteko?

3. Nafarroako Gobernuak nola aurreikusten du LH dualeko programak ekoizpen-sarearen eta sektore estrategikoen behar aldakorretara arin egokitzea?

4. Nafarroako Gobernuak zer ebaluazio- eta jarraipen-sistema ezarri nahi du LH dualeko ikasleen laneratzea neurtzeko eta eredu horrek haren enplegarritasun-helburua benetan betetzen duela bermatzeko?

Iruñean, 2025eko irailaren 28an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/PES-00351. Galdera, Nafarroako Turismoaren Agenda Ofizialean Corellako Ardo Azoka ez agertzeari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Nafarroako Turismoaren Agenda Ofizialean Corellako Ardo Azoka ez agertzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1.- Corellako Ardo Azoka zergatik ez zen agertzen Nafarroako Turismo Agenda Ofizialean (<https://www.visitnavarra.es/eu/agenda>), joan den astebururako Nafarroako hainbat herritan programatutako ekitaldien barruan?

2.- Zer irizpide jarraitzen ditu Nafarroako Gobernuak, Turismoko Zuzendaritza Nagusiaren bidez, bere Turismo Agenda Ofizialean ekitaldiak sartzeko? Ekitaldiak zer herritan egiten diren, herri horiek

eskatuta sartzen ditu, ala irizpide horietan oinarrituta zuk hartzen duzun erabakia da?

3.- Corellako 40. Ardo Azoka iragartzeko afixan zergatik ez da agertzen Nafarroako Gobernuaren marka bakar bat ere (Reyno Gourmet, Nafarroako Ardoaren Ibilbidea, Nafarroako Turismoa...), ezta Nafarroako Gobernuaren beraren logoa ere?

4.- Nafarroako Gobernuak zer irizpide baliatzen ditu, Turismoko Zuzendaritza Nagusiaren bidez, ekitaldiak iragartzeko afixatan "Nafarroako Turismoa" marka paratzeko?

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa EcheGARAY

11-25/PES-00352. Galdera, Hiri Zirkularraren proiektuari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa EcheGARAY jaunak egindako galdera, Hiri Zirkularraren proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa EcheGARAY jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, Hiri Zirkularraren proiektuari buruzko honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1.- Nortzuk egon ziren 2020ko urriaren 20an Hiri Zirkularra proiektuaren aurkezpen instituzionala eta azalpena egite aldera Nafarroako Gobernuko lehendakariaren bulegoan egindako bileran?

2.- Zer ohar hartu zituen Gobernuko lehendakariak proiektu horri buruz?

3.- Nor ziren proiektu honen sustatzaileak?

4.- Nondik heldu da proiektuaren 157,6 milioi euroko aurrekontua? Zein entitatek egin behar zuten proiekturako ekarpena? Zenbat jarri behar zuten bakoitzak? Ba al dago guztizko zenbateko hori azaltzen duen aurrekontu-banakatzeri buruzko dokumenturik?

5.- Zein zen proiektu horren epea eta non kokatu behar zen?

6.- Zenbat bilera egin zuten proiektuaren sustatzaileek orduko Etxebizitzako kontseilari José María Aierdirekin? Nortzuk egon ziren bilera horietako bakoitzean?

7.- Zergatik sartu zuen Nafarroako Gobernuak Hiri Zirkularra proiektua "Nafarroa Green" Trantsizio Ekologikorako estrategian?

8.- Ba al dago proiektu horri buruzko dokumenturik, haren azalpena "Nafarroa Green" Trantsizio Ekologikorako Estrategiaren dokumentuan sartu aurretik? Zertan oinarrituta egin da azalpena?

9.- Zergatik ez zen azkenean proiektua egin?

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa EcheGARAY

11-25/PES-00353. Galdera, Cintruénigoko La Paz BHIaren hezkuntza- eskaintza handitzeari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Cintruénigoko La Paz BHIaren hezkuntza-eskaintza handitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak zer epe darabil gogoan Cintruénigoko La Paz BHIren hezkuntza-eskaintza handitzeko, eta zer heziketa-ziklo ezarri nahi ditu zehatz-mehatz?

Iruñean, 2025eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-25/PES-00354. Galdera, zeliakia edo glutenarekiko intolerantzia duten pertsonei laguntzeko neurri ekonomiko espezifikoari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, zeliakia edo glutenarekiko intolerantzia duten pertsonen laguntzeko neurri ekonomiko espezifikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Kontuan hartuta zeliakia edo glutenarekiko intolerantzia duten pertsonen elikadurak eta glutenik gabeko dieta jarraitu beharrak gainkostua dakarrela, Nafarroako Gobernuak neurri ekonomiko espezifikorik abiaraziko al du pertsona horiei laguntzeko?

Iruñean, 2025eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-25/PES-00355. Galdera, Laneratzeko Plan Estrategikoari buruzkoa*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Laneratzeko Plan Estrategikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Noiz ekarriko duzu Nafarroako Gizarteratze Plan Estrategikoa legebiltzar honetara?

Iruñean, 2025eko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-25/PES-00356. Galdera, Ultzama ibaian dozenaka amuarrain hilik agertu izanaren arrazoiei eta neurriei buruzkoa*FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Ultzama ibaian dozenaka amuarrain hilik agertu izanaren arrazoiei eta neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Zerbitzuaren jarduketa-aktari dagokionez (3672-1753003224287 intzidentzia-zenbakia), Ultzama ibaian dozenaka amuarrain hilik agertu direla-eta, honako hau galdeztzen dugu:

Zer kautela-neurri edo zaintza intentsiboko neurri hartu ziren gertakari horren kausak argitzeko edo prebenitzeko?

Gertaeraren berri eman al zitzaion Ebroko Konfederazio Hidrografikoari, Osasun Publikoari edo beste edozein erakunderi? Zer bide baliatu zen hori egiteko? Ba al dago horren frogagiririk? Gertaeraren berri eman ez bazen, zergatik ez zen hori egin?

Iruñean, 2025eko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

11-25/DPGC-00001. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, erkidegoaren egoerari buruzko 2025eko eztabaida dela-eta

2025eko urriaren 6an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, zeinean eskatzen baita Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida egitea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 226. artikuluan xedatuarekin bat etorritik Osoko Bilkurak eztabaida dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, erkidegoaren egoerari buruzko 2025eko eztabaida dela-eta

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduak ezartzen duenez, Nafarroako Gobernuak eskatzen du erkidegoaren egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida egitea.

Eskabidea izapidetu ondoren eginen da eztabaida, adosten den egunean, kaudimen ekonomiko handiko eta aurrerapen publikoen testuinguru batean, eta Parlamentuaren aparteko jardueraren esparruan, non, Gobernuan ari garen bezala, lan eginen baita erakundeak gardenak izan daitezzen, prozedurak zorrotzak eta bermatzaileak izan daitezzen, legezketasunaren, zintzotasunaren eta kontuak ematearen konpromisoarekin, haren aldeko apustua egin baitu Nafarroako Gobernuak.

Gainera, Nafarroa ez dago munduko testuingururik kanpo, eta, hartan, Europar Batasunak erabakimenez jokatu behar du definitzeko zer zeregin izanen duen sortzen ari den mundu-ordena berrian,

eragile politiko, ekonomiko eta soziala den aldetik. Ordena horretan, gero eta gehiago zabaltzen ari dira gobernu-eredu autoritarioak, eskuin muturrekoak, horrek demokraziari eta herritarren eskubide eta askatasunei dagokienez dakarren guztiarekin. Testuinguru horretan, gainera, indarkeriarako eta are gerrarako joera gero eta handiagoa da munduko hainbat eta hainbat tokitan. Gazak, Ukrainak eta beste hainbat tokik gizarte gisa esku hartzeko deia egiten digute, mundu baketsu baten aldeko konpromisoa hartu behar baitugu, non giza eskubideak errespetatuko baitira eta herritarrek bizi-proiektu bat eraikitzeko aukera izanen baitute.

Eskualdeko nahiz Europako esparru horretan, Nafarroak aurrera egiten jarraitzen du. Hala berresten dute hainbat adierazlek. Espainian bizikalitaterik handiena duen erkidegoa gara, enplegu-zifrak markak hausten ari dira, kreditu-kalifikazioa hobetu berri dugu eta maila gorenetik bi mailara baizik ez gaude, eta gure hezkuntza arrakastaren adibidea da: 0-3 urteko hezkuntza publikoa doakoa da, Lanbide Heziketa Dualeko ikasle guztiak aurkitzen dute enplegua, eta NUPek ere enplegagarritasun-maila handia du. Jakina, erronka oso konplexuei ere aurre egin behar diegu, hala nola etxebizitza eta osasun publikoa eskuratzeko zailtasunei, egungo testuinguruan profesionalak behar baitira, biztanleria hazi baita eta bizi-itxaropena handia baita. Erronka horiek dira garrantzitsuenak, migrazioen eta bizikidetzaren erronkekin batera.

Legegintzaldiaren erdia baino gehiago egin dugu. Baina gobernuak bere zereginari eusten dio, eta, beste gai garrantzitsu batzuez gain, ondorengo hilabeteetan Industriari eta Enpresak Sustatzeari buruzko Foru Lege berria izapidetuko da, eta industria-inbertsioetarako funtsa eratuko da. Nafarroa oraindik ere buruan dago industriari BPGan duen pisuari dagokionez, eta egitura ekonomikorako egonkortasun-eredu bat finkatzen ari da. Lanean ari da jada finkaturik dauden sektoreen etorkizunaren alde, eta beste sektore batzuetan aukerak

bilatzen, sortzen ari direnetan edo orain arte erkidegoan garrantzi txikiagoa zutenetan, hain zuzen.

Jakina, gure garapenak lotura du zenbait azpiegitura eta zerbitzu bultzatzearekin, hala nola konektagarritasuna, eta lan horri eutsiko diogu, autogobernua aurrera egiteko transferentziak lortzen ariko garen bezala. Gai horietan guztietan eta beste batzuetan aurrera egiteko, Espainiako Gobernuarekin lankidetzan aritu behar dugu.

Halaber, urrats garrantzitsuak egiten jarraituko dugu bizikidetzaren arloan, eta plan estrategiko berria eta terrorismoaren biktimei buruzko forulege berria onetsiko ditugu, besteak beste.

Izan ere, bizikidetzarik gabe ez dago oparotasunik. Horregatik, eta gure lurraldea moldarazten ari den gizarte-egitura berriaren ondorioz, arlo horretan jada ezagutzen ditugun eta abian dauden erronkez gain, beste gai oso kezagarri batzuei egin behar diegu aurre, hala nola gorrotoaren diskurtsoei, xenofobiari eta aniztasunaren aurkako erasoei.

Gainera, parlamentuaren bilkura honek balio behar du erakunde demokratikoei geure zeregina sendotzeko, sistemako eragile garrantzitsuak baizara, beharrezkoak eta onuragarriak, eta polarizaziotik harago joan behar dugu, herritarren zerbitzuko tres-

nak izan gaitzean, haien beharrekin loturikoak eta behar horiei erantzuten dietenak.

Askotan, politika herritarrengandik urruntzen da, egunerokotik eta estrategikotik urrun dauden eztabaidetan katramilatzen denean. Hori dela-eta, politika orokorreko bilkura hau aukera paregabea da eztabaida horiek lurrera ekartzeko, herritarrekin konektatzeko eta politika ona aldarrikatzeko; izan ere, elkarrizketa lasaia eta eraikitzailea erakundeen konpromisoa da eta izan behar du, oinarria baita aliantza positiboak eraikitzeko, topaguneak lortzeko eta, espero dezagun, adostasun zabalak lortzeko; izan ere, erronkek galdera berriak planteatzen dizkigute etengabe, eta erantzunik onena eman beharra diegu.

Idazki honen bidez Nafarroako Parlamentuan agertzea eskatu nahi dut formalki, Nafarroako Gobernuaren izenean, ganbera horretako organoek hala erabakitzen dutenean politika orokorreko eztabaidan parte hartzeko, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduari jarraikiz.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

11-25/DPGC-00001. Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2025eko eztabaida antolatzeko arauak

2025eko urriaren 6an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida antolatzeko honako arau hauek onestea.

2. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari eta talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2025eko eztabaida antolatzeko arauak

Azaroaren 13a eta 14a

Azaroaren 13a

Eztabaida eginen da Erregelamenduaren 226. artikulua xedaturikoaren arabera, eta Gobernuko lehendakariaren mintzaldiarekin hasiko da.

Azalpen hori amaiturik, bilkura ordu erdiz etenen da. Bilkura berriz hasten denean, mintzatuko dira mintzaldi-eskaera egiten duten talde parlamentario guztien eledunak, 30 minutuz gehienez ere.

Mintzaldien hurrenkera parlamentari gehien dituen taldetik gutxien dituenera izanen da.

Mintzaldiak amaituta, Gobernuko Lehendakariak erantzun eginen die. Ondoren, ihardespentxanda bat irekiko da, hamar minutukoa gehienez ere, horretarako eskaera egiten duten talde parlamentarioen eledun bakoitzarentzat, hasierako mintzaldien hurrenkera berean.

Azkenik, eztabaida Lehendakariaren mintzaldiarekin bukatuko da.

Eztabaida bukatzen denean, hamabost minutuko epea irekiko da, talde parlamentarioek Mahaiari erabaki-proposamenak aurkeztu ahal izateko. Talde parlamentario bakoitzak gehienez ere bost proposamen aurkeztu ahalko ditu. Halaber, sinatzaileek proposamen horiek bidali beharko dituzte egoki den unean adieraziko zaien posta elektronikoko kontu batera. Mahaiak eztabaidagaiarekin koherente diren proposamenak onartuko ditu, eta talde parlamentarioen eledunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten.

Azaroaren 14a

Mahaiak onetsitako proposamenak Osoko Bilkuran eztabaidatuko dira, 09:30etik aurrera.

Erabaki-proposamenak aurreko eguneko mintzaldien hurrenkera berean eztabaidatuko dira.

Talde parlamentario bakoitzak bere proposamenak batera defendituko ditu, hamar minutuz gehienez ere. Ondoren, txanda bat irekiko da talde parlamentarioak, alde nahiz kontra, mintzatzeko, eztabaidaren hurrenkera berean, eta ihardespentxanda bat ere bai. Bi txanda horiek bost minutukoak izanen dira.

Talde parlamentario bakoitzaren proposamenak eztabaidatu ondoren, banan-banan bozkatuko dira erabaki-proposamenak.

